

IRAGARKIA 2022. urteko Enplegu Publikoaren Eskaintza zabaltzeari buruzkoa eta 2022ko maiatzaren 18ko 93. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiko akats bat zuzentzeari buruzkoa

FOMENTO DE SAN SEBASTIAN, S.A.

2022ko abenduaren 13ko ohiko bilkuran hartutako Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez emandako ahalmenak baliatuz, zuzendari-kudeatzaileak onartu egin du 2022. urteari dagokion Enplegu Publikoaren Eskaintza zabaldu eta lanpostu eta zuzkidura hauek gehitzea:

LANPOSTUA	TALDEA	LANPOSTU HUTS KOPURUA
Garapen ekonomiko eta komertzio teknikaria	Teknikaria	1
Administraria	Administraria	2
		3

Aipatu lanpostu eta zuzkidurak 32/2021 Errege Lege Dekretuaren Laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutako berriztapen tasa espezifikoari dagozkio eta Donostiako Udalak eskatu du horiek baimentzea. Hala ere, ohartarazten da Enplegu Publikoaren Eskaintzaren zabaltze honek, eraginkorra izateko, Ministerio eskudunaren baimena jaso beharko duela.

Zabaltze honekin areagotu egiten da Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 13an, onartutako 2022. urterako ohiko Enplegu Publikoaren Eskaintza eta eskaintza horrek barne zuen jarraian ageri den lanpostua. Ohartarazten da ere, iragarki honen bidez zuzendu egin dela 2022ko maiatzaren 18ko 93. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkian antzemandako akatsa, izan ere, azken koadroko "Lanpostua/Puesto" lehenengo zutabean, "Teknikaria / Técnico/a" zioen tokian, "Garapen Ekonomiko eta Komertzio Teknikaria / Técnico/a Desarrollo Económico y Comercio" esan behar zuen.

LANPOSTUA / PUESTO	TALDEA / GRUPO	LANPOSTU HUTS KOPURUA / NÚMERO DE VACANTES
Garapen ekonomiko eta komertzio teknikaria	Teknikaria	1

Ministerioaren baimena jaso ondoren, 2022. urterako ohiko Enplegu Publikoaren Eskaintza (ohiko berriztapen tasa eta berriztapen tasa espezifikoa) egikaritzetik eratorritako hautaketa prozesuen deialdia egingo da <https://www.fomentosansebastian.eus/eu/Kontratazioa> atalean egingo den argitalpenaren bidez. Bertan zehaztuko dira prozesu horien baldintza orokor eta espezifikoak eta baldintza horiek aipatu hautaketa prozesuetan parte hartzeko interesa duten pertsonen eskura egongo dira.

Donostia, 2022ko abenduaren 16a.

Zuzendari-kudeatzailea,



Iñigo Olajzola Arcaute